



EUSKADIKO ORKESTRA

EUSKADIKO ORKESTRA SINFOKINOAREN LEHIAKETEN ARAUDIA

HITZAURREA

ANTOLAKUNTZA: Orquesta de Euskadi, Saren zuzendaritzak, Enpresako Langileen Estatutuaren 1.2. artikulua oinarrian hartuta, Lehiaketetarako Araudi hau ezartzen du. Araudi honetan, lehiaketetan parte hartzen duten pertsona guztiei dagozkien eskubideak eta betebeharrak zehaztu dira, betiere irizpide ahalik eta objektiboena jarraituz eta diskriminazio ezaren irizpideak aplikatuta.

1.2. LEHIAKETAK: Orquesta de Euskadi, Saren plantilla artistikoko plazak kanpoko zein barruko lehiaketa bidez estaliko dira; lehiaketa mugatua ala itxia izango da, kasuaren arabera, eta alde zuzenetik deialdia egingo da, indarrean dauden arauen arabera. Xedapen horretatik salbuetsita daude lehen biolinaren plazak, eta enpresak bere irizpidearen arabera bete ahal izango ditu plaza horiek. (Langileen Estatutuaren 7.1.2. artikulua)

1.3. IRIZPIDEAK: Euskadiko Orkestra Sinfonikoan sartzeko hautapena kalitatearen eta gaitasun profesionalaren irizpideen arabera egingo da. Ez da diskriminaziorik egingo sexua, erlijioa, arraza edo ideologia dela-eta. (LEko 9. art.)

1.4. LEHENTASUNEZKO ESKUBIDEA: Sozietateko langileek eskubidea dute maila altuagoko postu huts bat betetzeko, eta lehentasuna emango zaie postua eskuratzeko, gainera, enpresatik kanpoko hautagaien baldintza berdinak betetzen dituztenean. (LEko 8.1. art.)

Sozietateko langileak maila baxuagoko postu huts bat eska dezake, hutsik dagoen postu horrek behin betiko izaera badu. Enpresako zuzendaritzak, zuzendari artistikoari edo musika-aholkulariari kontsulta egin eta gero, aipatutako eskaera onartu ahal izango du, hala badagokio. Uko egindako plaza betetzen denean bakarrik hasiko da langilea aipatutako postuan lanean. (LEko 8.2. art.)

2. OINARRIAK

2.1 BALDINTZAK: Orquesta de Euskadi, Sako zuzendaritzak ezarriko ditu lehiaketa bakoitzari dagozkion baldintzak, indarrean dagoen araudiaren arabera.

2.2. ARIKETAK: Orkestrako Zuzendaritza Teknikoak lehiaketarako ariketen proposamena eskatuko die Instrumentu Sekzioak bakarlariei. Prestatu eta gero, ariketak Zuzendaritzari edo musika-aholkulariari eta lehen biolinari proposatuko zaizkio, eta Musika Zuzendaritzarena izango da azken onarpena emateko erantzukizuna. Sekzioan bakarlaririk ez badago, Zuzendaritzak edo musika-aholkulariak egingo du proposamena.

2.3. HAINBAT INFORMAZIO ETA IZENA EMATEKO FITXA: Publikatu beharreko gainerako informazioa Orkestrako Teknikarien Sailak, Sail Administratiboak eta Komunikazio Sailak kudeatuko dute, Zuzendaritzak emandako arauen arabera.

3. ARGITALPENA

3.1. IRAGARKIA: Deialdiaren iragarkia Publizitatearen eta Lehiaren irizpideen arabera eta denbora nahikoarekin egingo da.



EUSKADIKO ORKESTRA

3.2. KOMUNIKAZIO KANALAK: Orquesta de Euskadi, SAKo zuzendaritzak ezarriko ditu komunikazio-kanalak, eta ahalik eta eraginkortasun handiena bilatuko du. Aldiro aztertuko dira kanal horien eraginkortasuna eta hobetzeko aukerak.

4. HAUTAGAIEN ONARPENA

4.1. HAUTAGAITZAK AURKEZTEA: Hautapen-probetan parte hartu nahi duten pertsonak eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, Oinarrietan aurreikusitako epeen barruan eta adierazitako bitartekoak erabiliz.

4.2. OINARRIAK ONARTZEA: Aurkezten den orok Deialdi Publikoa arautzen duten oinarriak ezagutzen dituztela ulertzen da, eta osorik onartzen dituztela. Era berean, Orkestrako zuzendaritzak izendatutako Epaimahaiak agindutakoa beteko dutela onartzen dute aldez aurretik.

4.3. AURKEZTUTAKO DATUEN EGIAZKOTASUNA: Aurkezten den orok zinpeko aitorten baten izaera ematen diote fitxari, bertan adierazitako datuen eta aurkeztutako dokumentuen egiazkotasunari dagokionez, eta hartutako konpromisoen onarpenari dagokionez.

4.4. ONARTUTAKO HAUTAGAIK: Onartutako hautagaien zerrenda orkestraren web-orrian argitaratuko da (www.euskadikoorkestra.es), oinarrietan aurreikusitako epeen barruan.

4.5. ONARTUTAKO HAUTAGAIK BAZTERTZEA: Edozein unetan, baita probak egitean edo hautagaiaren azken gaitasuna erabakitzean ere, daturen bat zehatza edo egiazkoa ez dela uste bada eta kanporatzeko arrazoiak izan badaiteke, datua ezin izango da zuzendu eta hautagaia baztertzeke erabakia hartu ahal izango da.

5. EPAIMAHAIK

5.1. EPAIMAHAIK OSATZEA: Orkestrako Zuzendaritzak erabakiko ditu Epaimahai osatzeko arauak, Zuzendaritzak edo musika-aholkulariak proposatu eta gero.

Euskadiko Orkestrako irakasleek, edozein sailkapen dutela, lehiaketa, oposizio eta entzunaldietako Epaimahaietan parte hartzeko betebeharra dute, baldin eta enpresak, zuzendariak edo musika-aholkulariak eskatzen badie. (Hitzarmenaren 27. art.)

5.2. OHIKO OSAERA: Epaimahaiaren ohiko osaera, salbuespenak salbuespen, honako hau izango da:

HARIA:

-Bakarlaria: Zuzendaria+Lehen biolina+Lehen biolinaren laguntzailea+Harizko bakarlari guztiak: guztira= 10

-Tutti: Zuz.+Lehen biol.+Lehen biol. lag.+Sekzioko bakarlariak+Bakarlari 1 Harizko Sekzio bakoitzetik+Tutti Sekz. 1: Guztira = 9

HAIZEA ZURA:

-Bakarlaria: Zuzendaria+Lehen biolina+Sekzioko bakarlaria+Zurezko gainerako bakarlariak: Guztira = 9

-Tutti: Zuzendaria+Lehen biolina+Sekzioko bakarlariak+Bakarlari 1 Zurezko Sekzio bakoitzetik+Tutti Sekz. 1 Zuz.+Lehen biol.+Lehen biol. lag.+Sekzioko bakarlariak+Bakarlari 1 Harizko Sekzio bakoitzetik+Tutti Sekz. 1 Guztira = 8



EUSKADIKO ORKESTRA

HAIZEA METALA:

- Bakarlaria: Zuzendaria+Lehen biolina+Sekzioko bakarlaria+Metalezko gainerako bakarlariak: Guztira = 8
- Tutti: Zuzendaria+Lehen biolina+Sekzioko bakarlariak+Bakarlari 1 Metalezko Sekzio bakoitzetik+Tutti Sekz. 1: Guztira = 8

PERKUSIOA:

- Bakarlaria: Zuzendaria+Lehen biolina+Perkusioko bakarlaria+Perkusioko bakarlari izateko gonbidatua: Guztira = 4
- Tutti: Zuzendaria+Lehen biolina+Perkusioko bakarlariak+Tutti Sekz. 1: Guztira = 5

ARPA: Zuzendaria+Lehen biolina+Arpa bakarlari izateko gonbidatua: Guztira = 3

- Goian aipatutako langile artistiko guztiek hitza eta botoa edukiko dute Epaimahaian.
- Goian adierazitako Epaimahaiaren osaeran kategoriak bereizten dira. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan indarrean dauden araudiak betez, ahal den guztietan lehentasuna emango zaie emakumezko langileei, aipatutako Legeak exijitzen duen emakumezkoen ordezkartzaren gutxieneko portzentajera iritsi arte, ahal bada.
- Enpresatik Zuzendaritza Orokorra edo horren ordezkari pertsona batek, erregidoreak eta Enpresa Batzordeko ordezkari batek bertaratu ahal izango dute. Guztiak hitzarekin baina botorik gabe.
- Zuzendaritza Teknikoari dagokio Epaimahaiaren idazkaritza, hitzarekin baina botorik gabe.
- Zuzendari artistikoa edo musika-aholkularia izango da Epaimahaiko lehendakari eta kalitatezko botoa eta beto-eskubidea edukiko ditu.

5.3. EPAIMAHAIA ISOLATZEA:

- Epaimahaia entzunaldia hasi baino minutu pare bat lehenago bilduko da. Une horretatik aurrera, eta hautapen-prozesua amaitu arte, Epaimahaiko kideak ezin izango dira komunikatu Epaimahaikoak ez diren pertsonekin.

5.4. EPAIMAHAIAREN FUNTZIONAMENDUA:

- Epaimahaia osatu eta gero, berak erabakiko ditu burutu beharreko ariketak, baita entzunaldiak jarraituko dituen fase eta prozedura guztiak ere.
- Epaimahaia eskumena du oinarri hauetan aurreikusten ez diren alderdiei buruzko zalantzak argitzeko.
- Entzunaldia amaitzean, Idazkaritzak egokitzen jo diren hautagaiak jakinaraziko ditu, baita dagokien ordena ere, edo plazak hutsik geratu direla adieraziko du.
- Epaimahaiko idazkariak lehiaketaren akta idatziko du eta fase bakoitzaren emaitzak banakatuta adierazitako ditu. Azkenik akta hau Orkestrako Zuzendaritza Nagusira bidaliko du, honek azken ebaluaketa egin ahal izateko.

6. PARTE HARTZAILEAK

6.1. HAUTAGAITZAK AURKEZTEA: Entzunaldia hasi baino ordu erdi lehenago, gutxienez, hautagaiak entzunaldia egingo den lekura bertaratu behar dira eta harreraren izena eman behar dute.

6.2. ZOZKETA: Faseetan parte hartzeko ordena proben aurretik egingo den zozketa bidez erabakiko da, behin hautagaitzak jasotzeko epea amaitu eta gero.

6.3. PIANO JOTZAILEA: Orkestrak piano-jotzaile laguntzaile bat jarriko du parte-hartzaile bakoitzarekin jotzeko, proba egiten den unean. Hautagaiak aldeztu aurretik piano-jotzailearekin entsegurik egin nahi badu, Orkestrak harremanetan jarriko ditu eta entsegua egiteko lekua utziko die. Kasu horretan, hautagaiaren kontura izango da piano-jotzailearen kontratazioa.



EUSKADIKO ORKESTRA

Parte-hartzaile bakoitzak bere pianistarekin aurkezteko aukera izango du.

6.4. BEROKETA: Parte-hartzaileek Orkestrako langile teknikoen jarraibideak beteko dituzte, eszenategira atera aurreko beroketa-geletara sartzeko.

6.5. AURKEZPENEA: Erregidoreak hautagai bakoitzari dagokion parte-hartze zenbakia bakarrik esango du hautagaia eszenategira sartzean.

6.6. AFINAZIOA: A-442 afinazioarekin egingo dira entzunaldi guztiak eta hautagaiek ekarri beharko dute afinagailua; ezinbestekoa da, gainera, eszenategira sartu aurretik afinatzea. Behin eszenategian, pianoarekin afinazio azkar bat bakarrik egin ahal izango da.

6.6. LANAK: Oinarrietan adierazitako lanak interpretatuko dira.

6.7. KOMUNIKAZIOA EPAIMAHAIAREKIN: Gortina atzeko fase(et)an, hautagaiek ezin izango dute Epaimahaiarekin zuzenean hitz egin. Zalantzarik edukiz gero edo kontsulta bat egin behar izanez gero, erregidorearengana joko da (Epaimahaiak ez du ezer entzungo) eta erregidoreak jakinaraziko dio kontsulta Epaimahaiari.

6.8. ERANTZUKIZUNA: Entzunaldia hasi aurreko zerrenda-itxierara garaiz iristen ez diren hautagai guztiak, edo eszenategira dagokienean agertzen ez direnak, entzunalditik kanpo geratuko dira, fase bakoitzaren amaieran Epaimahaiak izangai horien parte-hartzea onartzen badu izan ezik.

6.9. KONTSULTA EPAIMAHAIARI: Lehiaketa amaitzean, parte-hartzaileek Epaimahaiarekin egindako parte-hartzeari buruz hitz egiteko aukera edukiko dute.

7. KONTRATAZIOA

- 7.1. KONTRATAZIOA: Hautatutako pertsonak Orkestraren Administrazioarekin harremanetan jarri behar dute, eta 15 egun naturaleko epea dute beren kontratazioa izapidetzeko eta Orkestrak adierazitako datetan hasteko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko. Era berean, konpromisoa hartzen du agintzen diren proba medikuak eta psikoteknikoak egiteko.

7.2. PROBALDIA: Kontratututako pertsonen probaldia hasi eta sei hilabetera bilduko da Epaimahaia, eta hautagaia onartzea edo kanporatzea erabakiko du ondoren, bakarlariekin eta Sekzioarekin kontsulta egin eta gero.

7.3. INSTRUMENTUA: Plazara sartzen den pertsonak bere instrumentua jarriko du (kontrabaxuen, arpen eta perkusioaren kasuan izan ezik). Edozein kasutan, instrumentuaren kalitatea ez da Audizioan erabilitakoa baino baxuagoa izango.

7.4. ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO ZERRENDAA. Hautapen-prozesuak aprobetxatzeko helburuarekin, Kalifikazio Epaimahaiak deitutako espezialitate bakoitzaren hautagaien zerrenda bat egingo du, deitutako lanbide-kategoria bereko edo kategoriatu baxuago bateko aldi baterako lanerako kontratatutako egokiak diren hautagai guztiak.



E U S K A D I K O
O R K E S T R A

7.5. LANKIDEEN ZERREDA: Euskadiko Orkestrak instrumentu horretarako duen lankideen zerrendan sartuko dira entzunaldian gaitzat jo diren hautagai guztiak, dagokien ordenan. Epaimahaiak gaitzat jo ez badira ere aipatutako lankideen zerrendan egoteko maila nahikoa duten hautagaiak sar ditzake zerrenda horretan, zerrendan beherago.

7.6. ENTZUNALDIAREN BALIOA: gaitzat jo diren hautagaien zerrenda baliozkoa izango da entzunaldia egiten denetik hurrengo 18 hilabeteetan.

7.7. BESTE PLAZA HUTS BATZUK: Hutsik dagoen plaza Euskadiko Orkestrako titular batek beteko balu, Epaimahaiak hurrengo hautagaiari eskaini ahal izango dio ondorioz hutsik geratuko den maila baxuagoko plaza.

8. EZARPENA ETA INDARRALDIA

Araudi hau sinatzen den egunetik aurrera aplikatuko da eta indarrean egongo da, bere ordezkio beste araudi bat onartu arte.

Donostia / San Sebastian, 2017ko Abuztuak 18a.

Oriol Roch Izard jauna
Zuzendari Nagusia

Robert Treviño jauna
Musika/zuzendaria

* Arauok interpretatzeko, gaztelaniaz idatzitako testuarena da balio duen bertsio bakarra.

